

Funtsezko elkarteak

Guretzako beste enpresa batekin kolaboratzea edo aliantza bat egitea oso garrantzitsua da gure helburuak lortzeko. Gainera, alianza bat egiten kostuak murriztu, irabaziak handitu eta bezero gehiagorengana iritsi ditzakegu besteak beste.

Horregatik, beste enpresa batzuekin indarrak batzeko bide desberdinak pentsatu ditugu; giza-baliabideak partekatu, aktibitateak konbinatu, informazioa partekatu... Horrekin batera, hainbat enpresa-izenen zerrenda bat egin dugu, gero bat aukeratzeko.

Hau dena langileen artean hitz egin eta gero, Ormo's enpresarekin indarrak batzea erabaki dugu. Enpresa honek hainbat gauza eskainiko dizkigu; konkretuki, altzariak merkeago salduko dizkigu; enpresa honek altzariak saldu eta diseinatzen ditu eta.

Horren truke, publizitatea egingo diogu enpresari. Gure web orrian eta sare sozialetan, altzairuen marka jarriko dugu eta nongoak diren ere; kasu honetan Ormo's enpresatakoak. Beraiekin hitz egin eta gero hau erabaki dugu.

Bezero gehiago erakartzeko, denda arropa batekin kolaboratuko dugu: *Kaotiko*. Aplikazio baten bidez, bezeroek puntuak jasoko dituzte gure lokalara etortzean. Gero puntu horiek marka honen arropa-dendan kanjeatuko dituzte, oferten truke. Gainera, lokala barruan zenbat denbora zauden arabera, puntu gehiago edo gutxiago jasoko ditu bezeroak.

Aliantza on batek denbora luzea darama, baina emaitzak sortzen ditu. Estrategia-motaren arabera, asteroko berrikusketak zehaztasun handiz egitea eska dezake, baita hilekoak edo hiruhilekoak berrikustea ere. Aliantza estrategikoa hazteko aukera handia da, bakarrik borrokatzeari uzteko eta zure erronka berberak dituzten beste batzuetan laguntzeko aukera.